

Uraren ziklo integrala digitalizatzeko aurrerapena

Smart AMVISA 2025 Proiektuak, Europako funtsekin finantzatuta, eraldatu egin du uraren zikloaren kudeaketa gure hirian, zerbitzuaren prestazioa hobetzeko.

AMVISA eraldaketa digitaleko plan handinahi baten garapenean murgilduta dago, uraren ziklo integralaren kudeaketa azken aurrerapen teknologikoak sartzeko, harguneetatik ur zikinen amaierako isurketaraino.

Digitalizazio horrek, lehen-lehenik, gailu digital ugari instalatzea dakar, uraren zikloaren fase guztietatik datozen datuak eta informazioa bildu eta bidaliz, emarien neurketa eta kalitatearen kontrola hobetzeko.

Orain arte, AMVISAK egin izan ditu jarduerak norabide horretan, eta harguneetan emarien neurgailu berriak, sarean ihesak aurrelokalizatzeko sistemak eta edateko uraren kalitatea etengabe neurtzeko sentsoreak instalatzeko lanak hasita daude.

Banaketa sistemaren kontrola hobetzen ere ari da, sarearen modelizazio matematikoaren bidez, eta kontrolatu gabeko bolumenak edo balizko ihesak azkar eta zehatz detektatzen laguntzen duten sektoreak sortu dira. Gaur egun, Abetxukun sektorizazio proiektu pilotu bat garatzen ari



gara, kudeaketa eredu horren aukerak probatu eta hiri osora estrapolatu ahal izateko.

Horri guztiari Ulibarriko urtegiaren kalitatea kontrolatzeko zunda gehitu behar zaio,

dagoeneko operatibo dagoena, eta Arakako edateko uraren araztegia kontrolatzeko softwarearen birmoldaketa exekuzio fasean dago.

Baina azken bi urteetako jarduerarik garrantzitsuena **teleirakurketa ezartzea** izan da, teleneurketarako 20.000 kontagailu berri baino gehiago gehituta, eta, gainera, oraindik ordeztu behar ez diren kontagailuetan datuak igortzeko sistemak instalatu dira. Aldi berean, komunikazio sarea hedatzen joan da, kontagailu eta gailu guztietako datuak jasotzea eta bidaltzea bermatuko duena, datuak tratatzeko eta kudeatzeko.

Aurten neurketa eta kontrol gailuak instalatzeko lehen fase hori osatu ondoren, AMVISAK aurrera egingo du jasotako datuak integratzeko eta ustiatzeko tresnak sartzeko, Teleneurketa eta Telekontrol Sistema integratu eta adimendun bat garatuz, eta beharrezkoak diren proiektuak idatziko dira enpresaren kudeaketa eta funtzionamendua ingurune digital batera egokitzeko.

Digitalizazioaren onurak eta itxaropenak

AMVISAK espero du uraren hiri zikloaren eta enpresaren beraren kudeaketaren eraldaketa digitalak lagundu egingo duela Uraren Zerbitzu Integralaren prestazioa hobetzen, zeregin hauek ahalbidetuko baititu:

- Kalitatearen eta isurketen kontrolaren arloko exijentzia gero eta handiagoari eraginkortasunez erantzutea, baita sarean kudeaketa eraginkortasun maila handiagoak bilatzea ere.
- Uraren kudeaketa jasangarrian eta Klima Aldaketaren aurkako borrokan sakontzea, aurreikusitako jarduerak uraren ziklo integralaren kudeaketa erabilitako energia kontsumoa murrizten lagunduko baitute.
- Informazioa kudeatzeko sistema bat garatzea, erakunde erregulatzailerikiko komunikazioa arintzeko –horien artean Ebroko Konfederazio Hidrografikoa eta URA–, eta enpresaren zibersegurtasuna bermatzeko eta bezeroaren esperientzia eta gardentasuna hobetzeko.

Gainera, proiektuak Gasteizen Smart Cityko beste ekimen batzuk hedatzea bultzatuko du, eta landagunean arrakala digitala ezabatzen lagunduko du.

Hobekuntza-proiektuen norgehiagokako lehen deialdea uraren hiri-zikloaren eraginkortasunaren alde, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia planaren esparruan (PERTE Uraren Zikloaren digitalizazioa). Europar Batasunak finantzatua "Next Generation EU"



Sartu hemen **Smart AMVISA 2025 proiektuaren** azalpen-animazio batera

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.
Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org



Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko Udal Urak, A.B.